

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Bigarren alkateordea eskuordetzea desjabetze aktak sinatzeko

Alkatearen 458/2019 Dekretua

Ikusirik Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko Lege eta Administrazio Zerbitzuak aurkeztutako idazkia, 2018-50-0001 zenbakiko espedienteari buruzkoa, zeinaren bidez jakinarazten baita Lukiano, Aperregi eta Gillerna (Araba) herrietako hondakin uren saneamendu eta arazketa proiektuaren (I. fasea) okupatu aurreko aktak eta okupazio aktak egingo direla 2019ko abenduaren 4an, 10:00etan, Zuiako udaletxean.

Ikusirik agiri hau sinatzen duena ezin dela egon udaletxean egun eta ordu horretan.

Kontuan izanik Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21.3 eta 23.3. artikuluetan xedatutakoa eta toki erakundearen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren arautegia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 43. eta 44. artikuluetan xedatutakoa.

EBAZTEN DUT

Lehenengoa: Inma Elorza Bergara bigarren alkateordea eskuordetzea aipatu den 2018-50-0001 zenbakiko espedientearen desjabetze aktak sinatzeko.

Bigarrena: ebazpen hau interesdunari jakinaraztea eta ALHAOn argitaratzea.

Murgia, 2019ko azaroaren 27a

Alkate-lehendakaria
UNAI GUTIÉRREZ URKIZA